# Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

La guerra en Euskadi

**Luis Mª eta Juan Carlos Jimenez Aberasturi**

TXERTOA

360 orrialde

19,95 euro

## 36ko Gerraren argilunak

Hirugarren berrargitalpena ezagutu du dagoeneko Luis María eta Juan Carlos Jimenez Aberasturi anaiek 1979an plazaratu zuten *La guerra en Euskadi* liburuak. 1936an Espainian indarrean zegoen Errepublikaren aurka Franco eta bereen altxamenduak hasitako gertaera zital hartan, legezkoa zenaren alde gerran parte hartu zutenen artean zeuden ezberdintasunak agerian utzi zituen liburuak. Alderdi eta erakunde guztietako partaideak elkarrizketatu zituzten egileek, haien artean Miguel Amilibia, Sabino de Apraiz, Luis Arbella, José M. Barandiaran, Julio Caro Baroja, Manuel Chiapuso, Félix Liquiniano, Joseba Elosegi, Alberto Onaindia, Ramón Ormazábal eta Martin Ugalde, besteak beste.

Zaldi hustuak

**Aritz Gorrotxategi**

EREIN

80 orrialde

8,90 euro

## Poesia, bizitza eta heriotzaren mugan

Aritz Gorrotxategik osatutako poema bilduma berriak *Zaldi hustuak* du izena. Olerki sortaren ardatza bizitzaren amaieran, Heriok dei egingo digula ikusten hasi arteko uneetan, kokatzen da. Virgilioren sinbologian gerra irudikatzen duen Troyako zaldiak ematen dio hasiera poetaren ibilbideari, *Trajedia ehuntzen abilena* izandako Homero gogoratuz eta bere barnean ondo arakatuz, kanpoan zer gerta daitekeen ikusteko abilezia duen itsuari bidea zabaldu aurretik. Eta zer da Itaka, galdetuko dio bere buruari Gorrotxategik, honako beste galdera honekin erantzuteko: *Etxean utzitako laztanak,/ eman gabe geratu direnak,/ eta berdin absentzian irudikatuak,/ guztiak/ banan-banan berreskuratzea/ apenas hitzik esan gabe,/ atzo bertan etxetik/ irten bazina bezala?*

Euskal Herria en bici

**Mikel Bringas Diez**

ELEA

154 orrialde

16 euro

## Euskal Herrian bizikleta gainean egin daitekeena

Bizikleta zale guztiei zuzendutako gida da *Euskal Herria en bici,* bai ohituraz txirrinduaren gainean turismoa egiten dutenei, eta baita besterik gabe bizikletan askotan ibiltzeko usadiorik ez dutenei ere. Euskal Herria osorik, herri batetik besterakoak egiteko aukera eskaintzen du. Proposatzen diren etapetako batzuk hauexek dira: Donostia-Hondarribia, Hondarribia-Senpere, Senpere-Baiona, Baiona-Hazparne, Hazparne-Donapaleu, Donapaleu-Maule, Donibane Garazi-Elizondo, Elizondo-Lesaka, Lesaka-Oiartzun, Lekunberri-Iruñea, Figaro-Tutera, Tutera-Arguedas, Erriberri-Lizarra, Acedo-Gasteiz, Urduña-Zugaztieta, Zugaztieta-Bilbo, Mundaka-Lekeitio, Lekeitio-Itziar-Deba eta Zarautz-Donostia.

Koroa bikingoa

**Christian Jolibois, Christian Heinrich**

IBAIZABAL

48 orrialde

6,80 euro

## Printzesen zaindariak

Horrelakoxea da Aglae neska argiak eta Napoleon bere laguntzaileak osatu duten SOS Printzesak detektibe agentzia. Munduko edozein bazterretan printzesaren bat larri dabilela jakiten dutela? Bada, hara doaz biak azkar bezain prestu, baita bizi garen planeta hau alderik alde zeharkatu behar badute ere. *Koroa bikingoa* kontakizunean, Iparraldeko lurralde izoztuen azken muturrean, Nortenborg-eko gazteluan bizi den Ingrid printzesari lagundu beharko diote. Izan ere, mamu beldurgarri bat agertzen zaio gaztetxo horri, esanaz erregina izateari uko egin behar diola; Nortenborgeko tronuan emakume bat esertzen bada, zoritxarra eta hondamendia nagusituko direlako herrialdean. Ingrid, jakina, erabat izututa dago. Ez hala ordea, SOS Printzesak agentziako bikote adoretsua. Haiek argituko dute printzesa gajoari gertatzen zaiona.

Salbazioko Armada
**Abdela Taia**
ALBERDANIA
118 orrialde / 15 euro

## Abdela Taiaren nobela euskaraz eta gaztelaniaz

Poliki-poliki gaztelaniazko merkatuan presente egoteko asmoa dauka Alberdania argitaletxeak, Alberdania-Astiro bildumaren bidez, eta Abdela Taiaren *L'Armée du salut* nobelarekin ekin dio bide berri horri. Patxi Zubizarretak euskaratu du idazle marokoarraren idazlana, *Salbazioko armada* izenburuarekin. Gaztelaniazko bertsioa berriz, Gerardo Markuletak egin du eta *El ejército de salvación* du izenburua. Nobela honetan, Marokon bizi izan zuen haurtzaroa eta nerabezaroa agertzen ditu Abdela Taiak, bere homosexualitateaz nola ohartu zen, bide hartan jarraituz bizi izandakoak, eta amestutako Europara ikastera etorri zenean eraman zuen ezuste mingotsa.

## Eskuz jokatzeko pilota on baten historia, berak kontatua

Bizkarrean pilota partidu asko daramatzan bola biribil saiatu bati laguntzeko aukera eskaintzen die Antton Kazabonek zortzi urtetik aurrerako neska-mutikoei, *Ttantto* izenburuko liburuxkan. Eskuzko pilota da, dagoeneko zaharkitu samarra, baina oraindik ere fuerte antzean dago. Ongi mugitzen da pilotalekuko atzeko aldean, errebote txokoan, haurrek berarekin jokatzen dutenean. Baina oso pilota ona izandakoa da, eta jabe izan duen pilotariak omenaldi moduko bat egin nahi dio, Ttantto apaingarri bilakatuz.

Ttantto
**Antton Kazabon**
IBAIZABAL
64 orrialde / 8,56 euro

egileari galdezka

IBON SARASOLA

## «Lexikografia lan onena da erabilerrazena gertatzen dena»



RUBEN PLAZA

**Zer berrikuntza dakartza hiztegiak oraingoan?**

Nire *Euskal Hiztegia*ren bigarren argitaraldi honetan, 1996ko lehen testua berridatzi egin dut, Euskaltzaindiaren arauetara, eta bereziki 2000 urteko *Hiztegi Batura*, egokitzeko. Bestalde, egokitze lan horren ondorioz bigarren argitaraldi honek 2.500 bat sarrera berri ditu, *Hiztegi Batua*n bai eta *Euskal Hiztegia*n ez zeuden hitzei dagozkienak.

**Aldaketarik ba al da?**

Bat, sarreren itxuran. Oraingoan, adiera bakoitzak paragrafo bat osatzen du, hots, adiera bakoitzak beste paragrafo bat hasten du. Uste dut "bistaratze" honekin errazago aurkituko duela irakurleak bilatzen ari dena. Bestalde, Euskaltzaindiaren arauetara egokitze honek ez ditu kontuan hartu *Hiztegi Batua*z geroz Euskal Akademiak bere Hiztegiaren bigarren itzulian orain arte onartu dituen hitzak, behin-behineko onarpena besterik ez dutelako. Eta 2000 urteko *Hiztegi Batua*k gaitzesten dituen hitzei dagokienez, ez dut era berean jokatu kasu guztietan; aldaera dialektal hutsak direnean, aldaera estandarrera bidali ditut; baina *Hiztegi Batua*k gaitzesten duen aldaera nire Hiztegiaren lehen edizioko sarrera denean edo bestelako hitza denean, sarrera horiek bere hartan atxiki ditut. Hori bai, sarreraren bukaeran Euskaltzaindiaren gaitzespenaren berri ematen dut..

**Urte asko daramatzazu hiztegigintzan. Irakatsitakoetatik zerbait azpimarratzekotan, zer izango zen?**

Urte hauetako eskarmentuak gauza bat erakutsi dit. Kontu teorikoak gorabehera, lexikografia lan onena dela irakurle arruntarentzat erabilerrazena gertatzen dena.

## Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* berrargitaraturik

1975ean ekin zion Ibon Sarasolak hiztegigintza lanari. Horren fruitu dira *Euskal Hiztegi Arauemailea* (1977-79 urteetan argitaratua); euskal literatur tradizioa eta egungo testuak jasotzen dituzten 800.000 testu aztertu eta gero, 1982an plazaratu zuen *Gaurko euskara idatziaren maiztasun hiztegia*; 1984-1995 urteetan, bederatzi liburukitan argitaratu zen *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, eta lan horren guztiaren bateratze eta eguneratzea zen 1996ko *Euskal Hiztegia*. Azken hau da, hain zuzen, Elkar argitaletxearen eskutik bigarren argitaraldia ezagutu duena. Horretarako, 1996ko testua berridatzi du Ibon Sarasolak, Euskaltzaindiaren arauetara egokitzeko, eta lan horren emaitza diren 2.500 sarrera berri erantsi dizkio aurreneko argitalpenean agertzen zirenei. Moldatze lan horretan, izan du laguntzailerik ere: euskarri magnetikoa kudeatu duen Txantxon Zubeldia, esate baterako; eta Euskaltzaindiaren arauetara egokitze lanean ezinbesteko gertatu zaizkion Beatriz Zabalondo eta J. L. Aranguren *Txiliku*. Haatik, oraingo *Euskal Hiztegia* osatzerakoan ere, euskara batuaren eta euskalkien arteko arazoan, euskararen egungo egoerak eskatzen duen zabaltasuna izan du Ibon Sarasolak gidaritzat.

Euskal Hiztegia
**Ibon Sarasola**
ELKAR
1.056 orrialde
38 euro